



# Telekomunikazio-zerbitzu aurreratuak eskainiko dizkie Euskaltelek FVEMko enpresei

- *FVEM - Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntzak eta Euskaltelek berri-ekin egin dute FVEMko enpresetan telekomunikazio-zerbitzu aurreratuak elkarrekin sustatzeko.*
- *Euskaltelekiko hitzarmena dela medio, telekomunikazio-alarreko berrikuntza nagusiei buruzko informazioa eta trebakuntza eskuratzeko aukera izango dute FVEMko kide diren enpresek.*

**Bilbon, 2016ko abenduaren 22an.** Berri-ekin egin du Euskaltelek FVEM-Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntzarekin zuen hitzarmena, zeinaren arabera lankidetzaren esparru bat sortzen den bi erakundeen artean, dibulgazio- eta trebakuntza-ekintzen bidez telekomunikazio-zerbitzu aurreratuak sustatzeko FVEMko kide diren enpresen artean, haien lehiakortasuna hobetu eta,aldi berean, informazioaren gizartea garatzen laguntzeko.

Euskaltelen egoitzan sinatu dute hitzarmena FVEMeko lehendakari José Luis López Gilek eta telekomunikazio-operadoreko lehendakari Alberto García Erauzkinek. Biek nabarmendu dute sektoreko enpresen artean Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilera optimoa bultzatzeko beharrezkoa dela elkarrekin lan egitea.

Euskaltel eta FVEMren arteko hitzarmenak aukera emango die elkarteko bazkideei telekomunikazio-alarreko berrikuntza nagusiei buruzko informazioa eskuratzeko, joera eta erabilera berriei lotuta egiteko siderometalurgia-alarreko apustu teknologikoak. Gainera, FVEMk Euskaltelen esku jarriko ditu bazkideentzat antolatzen dituen jardunaldiak eta trebakuntza-programak.

Helburu bera dute Euskaltelek eta FVEMk: enpresetan telekomunikazioen aplikazioa bultzatzea eta azken teknologiko zerbitzu aurreratuak erabiltzea kudeaketa hobetzeko, bai eta informazioaren gizartean are gehiago sartzen jarraitzea ere.



### **Informazio gehiago:**

Cuatrobarras Comunicación  
[cuatrobarras@cuatrobarras.com](mailto:cuatrobarras@cuatrobarras.com)  
944058637

Euskaltel Komunikazioa  
[komunikazioa@euskaltel.com](mailto:komunikazioa@euskaltel.com)  
944011229

*Bizkaiko industriako sektore nagusia da metala; bi mila enpresatik gora ditu, lurraldearen ekonomiaren eragile guztiak ere. Hiru mila milioi euro baino gehiagoko balio erantsia sortzen du sektore horrek Bizkaian, 1.800 milioi baino gehiago ordaintzen ditu soldatetan, 500 milioi inguru gizarte-segurantzako kotizazioetan, eta 300 milioi euro baino gehiago inbertitzen ditu. Bizkaiko 50.000 langileri ematen die zuzeneko lana metalaren sektoreak.*

*FVEM 1977an sortu zen, Bizkaiko metal-industria historikoaren jarraipen eta oinordeko gisa. Bederatzehun bat enpresa ditu elkarteak, eta, guztien artean, 31.000 laguni baino gehiagori ematen diete lana. EAEko sektore-enpresen erakunderik handiena da gaur egun FVEM. Bizkaiko Enpresaburuen Konfederazioko (CEBEK) eta Metalaren sektoreko Enpresa Erakundearen Konfederazioko (CONFEMETAL) partaide da FVEM.*